

**irri solas****Urtebetetzeko oparia**

Enekok papagai bat nahi luke bere urtebetetze kari. Aitak dirua ematen dio:

-**Zoaz** txori saltegira eta han zuhauk hauta **ezazu** eta eros!

Txoritegian saltzaileak proposatzen dio:

-Gorri bat ala berde bat? Hauta **ezazu**!

-**Emadazu** gorri bat, bestea ez da ondua!



*Zer erraten dio Aitak? Nola erraten dio?*

*Nolako aditzak dira lodiz direnak? Non emanak dira perpausean?*

**oroit****AGINTERA**

Agintera **aginduak** eta **instrukzioak** emateko erabiltzen da.

Aginterazko aditza perpausaren **hastapenean** ezartzen da; **ezezko** perpausetan, **ez** partikula jartzen da **aitzinetik**.

**Egon isilik! Ezar ezazu** berokia! **Eman ieza** **emadazu** gatzontzia!

**Ez ezazu** hunki!

Agintera gehienetan **2.pertsonan (zu eta zuek)** erabiltzen da.

Aginduak **hiru modu erabiliz** eman daitezke :

Aditz-erroa : **Etorri! Hets atea!**

Aditz laguntzailea: **Har ezazu** gozoki bat!

Aditz trinkoa: **Zoaz** kanpora! **Emadazu** eskua.

**Aditz laguntzailea**

| NOR  |                 | NOR-NORK |               |                |
|------|-----------------|----------|---------------|----------------|
|      |                 |          | hura          | haiek          |
| zu   | <b>zaitez</b>   | zuk      | <b>ezazu</b>  | <b>itzazu</b>  |
| zuek | <b>zaitezte</b> | zuek     | <b>ezazue</b> | <b>itzazue</b> |

**NOR-NORI-NORK**

| Nor/zer                       | Nori                | Nork               |
|-------------------------------|---------------------|--------------------|
| <b>ieza</b><br>oparia (sing.) | <b>io</b><br>(hari) | <b>zu</b><br>(zuk) |

**Adib.:** Eman **iezaiozu** oparia!

oroit

AGINTERA

| AGINTERA   |  | NOR-NORI-NORK |         | ZUK       | ZUEK            |
|------------|--|---------------|---------|-----------|-----------------|
| Nor/Zer    |  | Nori          |         | Nork      |                 |
| IEZA (ZKI) |  | T/DA          | (niri)  | ZU<br>ZUE | (zuk)<br>(zuek) |
|            |  | IO            | (hari)  |           |                 |
|            |  | GU            | (guri)  |           |                 |
|            |  | IE            | (haiei) |           |                 |

Aditz trinkoa

| NOR  |         |         |        |            |
|------|---------|---------|--------|------------|
|      | EGON    | ETORRI  | JOAN   | IBILI      |
| hi   | hago    | hator   | hoa    | habil      |
| zu   | zaude   | zatoz   | zoaz   | zabiltza   |
| zuek | zaudete | zatozte | zoazte | zabiltzate |

| NOR-NORK (nor: hura) |        |         |         |          |         |        |
|----------------------|--------|---------|---------|----------|---------|--------|
|                      | EMAN   | EKARRI  | UTZI    | ERAMAN   | ERRAN   | EGIN   |
| zuk                  | emazu  | ekarzu  | utzazu  | eramazu  | errazu  | egizu  |
| zuek                 | emazue | ekarzue | utzazue | eramazue | errazue | egizue |

| NOR-NORI-NORK (nor: hura /nork: zuk eta zuek) |            |             |            |
|-----------------------------------------------|------------|-------------|------------|
|                                               | EMAN       | ERRAN       | EGIN       |
| niri                                          | emadazu(e) | erradazu(e) | egidazu(e) |
| hari                                          | emaiozu(e) | erraiozu(e) | egiozu(e)  |
| guri                                          | emaguzu(e) | erraguzu(e) | egiguzu(e) |
| haiei                                         | emaiezu(e) | erraiezu(e) | egiozu(e)  |

Nor pluralean delarik (haiek) **-zki-** tartekatzen da: emaz**ki**dazu, erraz**ki**ozu, egiz**ki**zue...

## Agintera ezagut eta erabil

### 1\*Lot itzazu perpausak eta aginduak.

|                               |                          |            |
|-------------------------------|--------------------------|------------|
| 1-Karrika zeharkatuko dugu.   | a- Bil ezazu berehala!   | <b>1-f</b> |
| 2- Zure ganbara ez da bildua. | b- Zoaz okindegira.      |            |
| 3- Ez duzu salda bukatu.      | c- Ez hunki!             |            |
| 4- Pintura ez da idortua.     | d- Zoaz komunera fite!   |            |
| 5- Ez duzu ogirik ekarri?     | e- Ken ezazu trikota!    |            |
| 6- Pixile zara?               | <b>f- Emadazu eskua!</b> |            |
| 7- Berotua zarela?            | g- Buka ezazu!           |            |

### 2\*Azpimarra agintera aditz egokia.

- a- Haurrak, **egon zaitez/egon zaitezte** geldirik!
- b- Aita, **jar zaitez/ jar zaitezte** hemen!
- c- Nahia eta Eneko, **atera zaitezte/ atera zaitez** kanpora.
- d- Amaia, **egon zaitez/ egon zaitez** isilik.

### 3\*Berridatz perpaus hauek, agintera aditz laguntzailea erabiliz.

a-Ama, zu egon lasai!  
*Ama, zu egon **zaitez** lasai!*

b- Iker, isil!

.....

d- Ikasleak, joan kanpora!

.....

### 4\*Berridatz erranaldi hauek, nor-nork agintera aditz laguntzaileak erabiliz.

a- Jon, ekar ura!

.....

b- Kaiet, hets atea!

.....

c- Maddi, urezta landareak, otoi!

.....

d- Olaia eta Ander, ez egin oihurik gela barnean!

.....

e- Kattin, ez ahanzi baloia!

.....

d- Ikasleak, ez andeatu margoak!

.....



### 5\*Errezeta hau osa ezazu.

#### Irris-esnea

1- Ontzi batean, esnea irakiten ezar ....., kanela-zotzekin eta zitroin azalekin.

2- Irrisa aitzinetik garbi..... eta beste ontzi batean egosaraz .....ura osoki lurrundu arte.

3- Orduan has .....esnearen isurtzen, zalitxo batez eta gelditu gabe, ondotik, zurezko zali batez nahas eta nahas.....

4- Irrisak esnea xurgatu arau, isur.....esne zalitarak, krema arian-arian osatu arte.

5- Irrisa alde bat egosi eta, azukrea eta dezilitro esne-gain erants.....

### 6\*Berridatz erranaldiak, agintera jokatzuz.

a- Kepa, garbi platera hauek, otoi.

.....

b- Ixo, ez erran gezurrik!

.....

c- Joana, ez joan hain goizik.

.....

d- Haurrak, jin hona eta bildu jostailuak.

.....

e- Hets leihoak (zuek), haizea baita.

.....

f- Eskatu arraina (zuk), biziki ona da hemen.

.....

### 7\* Agintera aditz trinko hauek koka itzazu erranaldietan.

**utzazu- emazue- habil- errazue- zatoz- egizue-**

a- .....(zu) ene etxera, elkarrekin jostatuko gara.

b- .....(zuek) lo, bihar goizik jaiki behar dugu!

c- ..... (hi) kanpora, aro ederra duk!

d- .....(zuek) txapela, eguzkiak jotzen du!

e- .....(zuk) bakean xakur gaixo hori!

f- .....(zuek) burasoei agerraldia goizean dela.

